

## Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2015ko urtarrilak 22ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Honako puntuen berri eman da** 1.1. Landaketa jardunaldiak URArekin; 1.2. Ebaluazio eta Jarraipen programa; 1.3. Fakturazio elektrikoaren optimizazioa; 1.4. Praktiketako ikasle bat sartzea; 1.5. Ekosistema hezeetako eta ibaietako fauna eta flora autoktonoak hobetzeko ekintzak; 1.6. Car Sharing.
- **Lehiaketa publikoa: abandonatutako animaliak biltzeko zerbitzua:** Falta den informazioa eskatzen zaie oraindik ere plegua eta txostena osatzeko behar diren datuak bidali ez dituzten udalei. Informazio horrekin, pleguaren behin betiko informazioa prestatuko da, argitaratu dadin.
- **Bileren egutegia:** Batzordeak udara arte egingo dituen bileren egutegia onartu da.
- **2015eko Ekintza Planaren Kronograma markoa:** Zerbitzuen edo proiektuen araberrako egutegia eta urteko mugarri eta erabaki nagusiak onartu dira.
- **Bilketa organikoari buruzko Informazio Plana:** Udalerri bakoitzean izena eman duten familia-kopuruari eta bigarren fasearen hasierari buruzko informazioa eman da.
- **Hondakin organikoak batzeko eta garraiatzeko zerbitzua:** Garbikerretik, zorionak eman dituzte, Konpostegira heltzen den bio-hondakinaren kalitate eta sailkatze onagatik. Euskarriak behar dituzten edukiontzi batzuk identifikatu dira.
- **Kontratazio-mahaia: etxeko landare-olioa biltzeko zerbitzuaren lehiaketa:** Lehiaketaren egoeraren berri eman da, eta erabaki da kontratazio-mahaia urtarrilaren 28an (asteazkena) elkartuko dela.
- **Smart City saio monografikoa:** Inergy-Eneak proiektuaren aurrerapenak aurkeztu ditu; era berean, eskualdeko Smart City Estrategian sartu beharreko ekintzen kontrasterako, eztabaidarako eta lehentasunerako ekintzen proposamena ere aurkeztu da.
- **Batzordearen hurrengo bilerak:**
  - Urtarrilak 28, asteazkena, 9:00etan, kontratoen bateratzea.
  - Otsailak 19, osteguna, Ura eta faktura elektrikoaren optimizazioa
  - Otsailak 25, kontratoen bateratzea.